



Jokalarien konfiantzazko lagunak

Mitxelo Olaizolak erretiroa hartu du, 37 urtez Realean aritu ondoren. Haren seme Unaik hartu dio erreleboa taldeko tresnazain gisa / 8-9

Extremadurako giroaz gozatu dute herritarrek

Berrogei urte bete ditu Ama Guadalupekoa elkarteak, eta ekintza kultural eta gastronomikoak antolatu dituzte. Atsedetik hartu gabe igaro dute asteburu berezia / 6-7



Musika, pintxoak eta garagardoa. Larunbata girotzeko plan bikaina eskainiko du Aterpea elkarteak / 03

Ezohiko udalbatzarra egin dute alderdiek, herriko egoera aztertu eta etorkizunak hitz egiteko / 02

Erregional Preferenteko futbolariak denboraldiari ekingo diote asteburuan / 10



aek
euskara praktikoa

MATRIKULAZIOA ZABALIK eman izena!

- Euskarako klaseak: A1, A2, B1, B2 eta C1 (EGA).
- Aurrez aurreko eskolak.
- Autoikaskuntza.
- "On-line" aukera.

Muntteri AEK euskaltegia
Geltoki kalea 17, behea, 20160 Lasarte-Oria • 943 37 28 63 • lasarte@aek.eus
www.muntteri.blogspot.com.es

Batzuk balorazio "oso ona", besteek "zakarra"

Udalerriaren egoerari buruzko eztabaida egin dute alderdiek, lehen aldiz. Herritarren bizi kalitatea "oso ona" dela esan du alkateak, baina oposizioko alderdiek iritzi horrekin desadostasunak agertu dituzte. Etorkizun hurbileko proiektuez ere aritu da Zaballosek

Maddi Noriega

Herritarren parte hartzearen araudiak 37. artikuluan behartu bezala, udalerriaren egoeraren eztabaida egin dute udaleko alderdiek, ezohiko udalbatzarrean. Gaiari lehen aldiz heldu, eta Lasarte-Oriaren egoeraren azterketa egin du alkateak. Azalpenari kontrako iritziak gehitu dizkiote, ordea, oposizioko gainerako alderdiek, eta Jesus Zaballos alkateak herriaren egoera "oso ona" dela esan badu ere, ez dute balorazioarekin bat egin.

Etorkizun hurbilean egiteko duten inbertsio handiena udal kiroldegi berria da. Egungo eraikina "zaharkitua" dago, eta herritarren eskariari erantzutea ezinezkoa dela onartu du Zaballosek. Egoera irauli eta irtenbide "azkar bat" ematen saiatuko da udala orain. Hori da ikasturte politiko berrirako lehentasunetako bat.

Horri helduta jarri dute mahai gainean Atsobakarreko futbol zelaiaren gaia ere. Usurbilgo Udalarekin akordioa lortzea "ezinezkoa" izaten ari da Lasarte-Oriako Udalarentzat, eta desadostasun hori, proiektua "atzeratzen" ari dela salatu du. Egoera horrek bultzatuta, gaia behin-behinean alde batera uztea



Ezohiko udalbatzarra egin dute herriaren egoera aztertzeko. TXINTXARRI

erabaki dute, eta kiroldegi berriaren lanei ekingo diete. Horrek, berriz, arazo handia ekar diezaieke Michelingo atletismoko pistako erabiltzaileei: bertan eraikiko dute kiroldegi berria, eta, horren ondorioz, entrenamenduetarako espazioa galduko dute kirolariek. Egoera horretara iritsiko balira, epaitegietara jo dezake udalak.

Oposizioko taldeek iritzi sendoak agertu dituzte gaiarekiko, eta ez dute onartu erru guztia Usurbili egoztea.

Bestalde, Atsobakar egoitzaren kudeaketa Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku utzi ostean, "erronka berri bat" dute orain, alkatearen hitzetan: plaza gehiago eskantzeko eraikina handitzea. Egun, 23 pertsona daude itxaron zerrendan, eta arazo horri aurre hartzeko, 50 berri egin nahi dituzte.

Atsobakar, erronka berri bat

Barne erregimenari dagokionean, oposizioak egiten ari dira.

Langileen gaiak ere eman du zeresana; udala "erabat

desegituratuta" dagoela uste dute EH Bilduk eta EAJk, eta horrek kudeaketa lana "zailtzen" duela. Esaterako, Hirigintza, Obrak eta Ingurumen departamentua denbora luzez izan da ardurarik gabe, baina iraila amaieran hasiko da postu horretako langile berria.

Eraldatzera doazen auzoak

Lasarte-Oriako zenbait auzotan eraldaketak izango dira. Jaizkibel plaza eraitsi eta urbanizatzen proiektua aurkeztuko dute laister. Zumaburu auzoan ere, Ribera kaleko lokalekin dauden arazoak konpontzeko ahaleginak egingo dituzte.

Guzti horrekin batera, martxan jarritako proiektuak eta egindakoak ere azalduta, Zaballosek hitzaldia amaitu du esanez lasarteoriarren bizi kalitatea eta udalerriaren egoera "oso ona" dela. Gainerako taldeek, ordea, azalduko arekin desadostasuna agertu dute.

Lasarte-Oria "zakartuta"

EAJk ez du Zaballosek bezalako "balorazio positiboa" egin. Aurreikusitako lizitazioak "dagoeneko aterata" beharko luketela uste du Jon Antxordoki bozeramaileak: "Proiektu gehienak ateratzeko daude, eta nahiko denbora izan da horretarako".

Hori bera uste du EH Bilduk ere, alkatea "urduri eta korrika" doala: "Beranduegi iritsiko dela ederki daki. Proposatutako inbertsio guztiak hauteskondeei begira planteatu ditu, ez herriak dituen arazo eta beharrei erantzuteko. Epe laburrerako etekinari begira gobernatzen ari da".

Ahal du Lasarte-Oria taldeko bozeramaile Arkaitz Nayak gaiarekin zalantza agertu du:

"Gobernuak herria zein ondo kudeatzen ari den azaltzen duen bitartean, oposizioko taldeok horri kontra egiteko erreminta gisa erabil zitekeela aurreikusitako dugu". Dena den, alkateari zenbait galdera plazaratzeko erabili dute euren tartea, eta beste zenbait gairen artean, Kotxerako pabiloiaz, Zataraingo norabide bakarreko errepedeaz eta Zabaleta Berriko etxebizitzaren arazoaz aritu dira.

Lourdes Acevedo PSE-EEko bozeramaileak alkatearen azterketa "erreal" dela ziurtatu du, eta orain arte egindakoarekin batera, etorkizunekoak hobetzen jarraitzeko asmoa erakutsi du.

"Gertuko" udaltzaingo baten alde

Joan den osteguneko saio luzearen ondoren, arin amaitu zuten astearteko ohiko udalbatzarra. Ohiko akten onarpenaren ondoren, ADLOP Ahal Du Lasarte-Oria Podemosek aurkeztutako mozioa eztabaidatu zuten, "udaltzain eredu gertuko" baten aldekoa. Herritarren kezak eta udaltzain beraien proposamenak bultzatuta, prozesu bat abiatu nahi du, egungo baliabideak aztertu eta udaltzaingo "eraginkorragoa" moldatzeko. Ñabardura batzuekin, baina alderdi guztiak babestu dute ekimena.

"Kudeaketa txarra zuritzeko gezurrak"

Atsobakarreko kirolgunearen eraikuntza oztopatzeko Usurbilgo Udalarekin "ados jarrita" egotea leporatu dio alkateak EH Bilduri. Alderdikideek jarrera hori "oinarririk gabekoa" dela salatu dute: "Zalantza bideragarritasuna zuen proiektuaren kudeaketa txarraren errua besteei leporatzea da asmoa".

Lasarte-Oriako EH Bildu da "lehenengo interesatua" herriak nahi duen proiektua egiteko Atsobakarren; herritarrek

erabakitzen dutenaren alde "nekerik gabe" defentsa egingo dute.

Bidegorria

Jesus Zaballos alkateak behin eta berriro errepikatu du Usurbilek bidegorri bat egiteko eskatu diola lur sailaren trukean, baina EH Bilduk hori gezurra dela ziurtatu du. Uztailaren 27an Usurbilgo Udalak bidalitako dokumentuan bidegorria egiteko "beharra eta premia" aipatzen dira: "Ez da inongo betebeharririk, etorkizunari begirako oharra baino

ez da". Bidegorria bi udalerrientzako da interesgarria. Hala defendatu du EH Bilduk. Izan ere, "guztiz arriskutsua" den puntu beltz bat (Troiaiko pasabidea) desagertuko da.

Horregatik, Pablo Barrioren ustez, dirurik ez dagoela esatea "guztiz larria" da. "Marisol Garmendiarentzat hildakoak eragiten dituzten pasabideak kentzea ez dira lehentasuna".

Lizitazioa egiteko aukera

Bestalde, Atsobakarreko proiektuaz ere hitz egin du EH Bilduk. "Lizitazioa aspaldi jar zitekeen



martxan. Nahikoa zen oinarrietan klausula bat jartzea, ohartarazteko Usurbilek baimen eta lizentzia guztiak eman bitartean proiektua ez zela martxan jarriko. Epaitegietara joateko mehatxua

galderarentzat egindako eszenifikazioa baino ez da". Edonola ere, Alderdia oso pozik agertu da kiroldegi berriaren proiektuari lehentasuna emateko erabakiarekin.



Zumaburuko Txema tabernan aurkeztu dute aurtengo ekitaldia. TXINTXARRI

Jatekoa eta edatekoa girotuko du musikak

Garagardoak lagundutako pintxo goxoak dastatzeko 'Pintxo Musika' egitasmoa antolatu du Aterpea merkatarien elkarteak. Zuzeneko musika emanaldi batzuk ere eskainiko dituzte zenbait tabernak. Asteburuaz gozatzeko aitzakiarik ez da faltako

Txintxarri

Musikak girotutako pintxo-pote berezia egingo dute bihar, larunbatean, herriko zenbait tabernak; Aterpea merkatarien elkarteak *Pintxo Musika* ekitaldia antolatu du egun guztian zehar. Mokadutxo goxoak garagardoaz lagunduta dastatzeko aukera eskainiko dute tabernariak, eta hiru euro ordaindu beharko dira trukean.

Txartel kafetegiak gaztaz betetako haragi-bolak eskainiko ditu, tomate saltsaz lagunduta. Primeran tabernan, berriz, etxeko saltsan bustitako ganba eta izokin broxeta dastatzeko aukera izango dute bezeroek. Txema tabernan txikitutako piperrez estalitako bokarta eta antxoia eta ogi txigortuaz lagunduko dute amstela. Arkupe tabernak *teriyaki* oilasko broxetak, curry mahonesarekin prestatuko ditu.

Egitasmoan parte hartuko duten beste taberna batzuk zuzeneko musika emanaldiak

ere eskainiko dituzte. Bus tabernan, adibidez, barrengorri eta ganba pintxoia erosi ahal izango da. Musikak lagunduko du giroa jartzen, 12:00etatik 15:00etara.

Buenetxea tabernan, Lasarte-Oriako Ibai Berriak taldearen musikarekin dantzatzeko dute bezeroek. Eta indarrak ez galtzeko, bakaillaoa tipula eta piperraz lagundutako mokaduak dastatu ahal izango dituzte herritarrek.

Totx tabernak Big Time Selektors & Jah Inity musika taldea ekarriko du eguna girotzeko. Horiek 18:00etatik 22:00etara eskainiko dute emanaldia, eta pintxo beganoak prestatuko dituzte.

Aurten elkarlanik ez

Giro paregabea izango da bihar herrian. Izan ere, pintxo musikarekin batera Xacobeo azoka ere izango da. Hori gutxi ez, eta hipodromoan Donostia Festibala egingo dute, aurreko

urteetakoei jarraipena emateko.

Donostia Festibala

Iragan urtean Kutxa Kultur Festibalarekin batera antolatu zuen Aterpeak egitasmoa, baina aurten ez dute elkarlanik izan, eta "euren kabuz" egingo dute pintxo musikatua.

Musika talde ezagunak izango dira ostiral eta larunbatean hipodromoan. Horien guztien artean Berri Txarrak talde nafarra arituko da oholtza gainean, baina horiekin batera, Kase. O, Pussy Riot eta C Tangana izan dira kartelburuak. Sarrerak oraindik salgai daude Interneten; antolatzaileek iaz baino bisitari gehiago aurreikusi dute.

**ZUZENKO MUSIKA
IZANGO DIRA PINTXO
MUSIKAN PARTE
HARTUKO DUTEN
ZENBAIT TABERNATAN**



NEURE KABUZ

ASIER ODRIOZOLA

Proposamena lasartearro

Ekimenik gehienak modu xebelean sortzen dira. Bateren bati pizten zaio buruko kandela, hark aipatzen dio bere tankerakoren bati otu zaiona eta ohartzerako, erremediorik gabe zabaltzen da norberak uste baino azkarrago eta zabalago. Halako gertaera baten berri eman eta proposamena egin nahi diot lasartear sentitzen den edonori. Kontxako estropaden bigarren igandea joan berri den honetan, herriko asko eta asko joan gara Donostiako badiara eta ondoren alde zaharreko kalekka eta tabernetara, gure jai egutegian leku berezia duen egunarekin gozatzera. Batzuk aspalditik gara estropada zale, nire kasuan Lasarte-Mitxelín herriko trainerua Kontxako uretan erakustaldiak ematen zituen garaitik. Horrek adin bat ematen dit, badakit, baina bizipen horiek itsatsita ditut barruan eta horrek ez du preziorik. Aitaren kotxean zinta hori eta urdina jarrita joaten ginen Donostiara, gaur egun trainerua duten herrietakoak joaten diren bezala. Horrek inbiri eman izan digu lasartear askori aspaldiko urteetan. Amaitu dira ordea inbiriak. Jon Altuna lankideak zeharka aipatutakoari hauspoa eman nahiko nioke (dagoeneko azaldu diot herritar bat baino gehiagori eta harrera ona izan du ideiak). Hurrengo urteko Kontxako bi igandeei begira Lasarte-Mitxelín arraun kamixetak aterako ditugu eta horri helduta proposamena: egin dezagun ikusgarri Orío, Urdaibai, Hondarribia eta beste hamaika koloreko kamixetekin batera gure herriak izan duen klubaren elastikoa. Ez dugula trainerurik? Ez, eta? Harrotasun ekimen bat besterik ez da eta nork daki... behar bada elastikotik tiraka etorriko da etorkizunean trainerua. Proba dezagun! Ea zer gertatzen den!

Pentsiodunak, KPlaren igoeraren alde borrokan

Lasarte-Oriako pentsiodunak kalera atera dira berriro ere. Oporraldiaren ostean aldarriak ez dira aldatu; pentsio duin baten alde ari dira borrokan, gutxienez hilean 1.080 euro jasotzeko.

O k e n d o n e g i n z e n elkarretaratzean Espainian eman diren pausoak azaldu zituzten. Lasarte-Oriako Koordinakundeko kideek aipatu moduan, Toledoko

itunaren jarraipen eta balorazio batzordeak aste honetan du bilera, eta haiek erabakiko dute pentsioak ezartzeko emateko zein sistema erabili. "Uste dugu haien interpretazioan oinarrituko direla berriro ere, eta ez guk herritar pentsiodunek egiten dugunean". Estaturako Pentsiodunen Koordinakundeak gutxienez KPla igotzeko eskaera egin du. "Ez dugu nahi inork ulertzen ez dituen formula mistoen bidez igoera ezartzea", adierazi dute Lasarte-Oriako ordezkariak.

Thailandia

IRTEERA 2019ko MAIATZEAN
Noaok gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

NOAOA
BIDAIAK

T: 943 373 613 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria

"Jantziak egiteko aukera ederra da ikastaroa"

TXEMA SAN ANICETO JANTZI TRADIZIONALEN IKASTAROKO KIDEA
Euskal Jaiak ate joka daudela eta, Ttakun Kultur Elkarteak jantzi tradizionalen ikastaroa antolatu du aurten ere. Urria eta azaroan izango dira bi ikastaro

Nerea Eizagirre

Gona, zapiak, mantala, atorra... Euskal Jaiak edo Gabonetarako jantzia prest izateko, aurten ere Ttakun Kultur Elkarteak euskal jantzi tradizionalen ikastaroa egingo du. Bi ikastaro izango dira, urrian eta azaroan. Saioak astearte eta ostegunetan izango dira, 15:00etik 17:00era, Emakumeen Zentro Zibikoan. Izen ematea Ttakuneko bulegoan egin behar da. Matrikula 25 eurokoa da elkarteko bazkide ez direnentzat; bazkideek 22 ordaindu behar dituzte. Txema San Aniceto (San Miguel de Robledo, Salamanca, Espaina, 1956) izan da ikastaroko ikasleetako bat.

Nolatan erabaki duzu parte hartzea?

Denbora dut gauzak egiteko, eta jantzia egitea pentsatu nuen. Dantza egiten dut, eta ez dut jantzirik data seinalatueterako. Erosi edo egin? Horixe izan zen nire buruari egindako galdera. Azkenean, egitea erabaki nuen. Uste nuen erraza izango zela, tolestura egin, goma bat sartu eta listo.

Eta zure emaztearentzako jantzia egin duzu...

Nire jantzia egin behar nuen hasieran. Baina ikastarora hurbildu, eta Ionek esan zidan hasteko emakumeen jantziarekin, gona egitea errazagoa zela. Baietz esan nion, pentsatuz tolestura egin, goma bat sartu eta listo izango zela. Ionek ezetz esan zidan, ez zela hori bakarrik, baina erraza zela. Nik bere esku utzi nuen, berak lagundu behar baitzidan. Emazteari bere gustuko oihalak erosteko esan eta jantzia egin nuen.

Ba al zenekien josten?

Zerbait banekien. Botoia jarri eta beste bi gauza. Makinarekin ere zerbait ibilia nintzen.

Orduan Ione Artola irakaslearen laguntza garrantzitsua izan da?

Bai. Ionek patroiak egin zituen, eta nik gero oihalak moztu, albaindu eta josi nituen.

Ikastaroan bi ordu ziren. Etxeko lanak ere eramaten nituen. "Hori erraza da, etxean egin behar duzu",



Txema San Aniceto, jantzi tradizionalen ikastaroan egindako lanarekin. TXINTXARRI

esaten zuen Ionek, eta hurrengo egunerako prest izaten nuen. Eguneroko, pixkanaka pixkanaka, txalekoa izan ezik, gona, alkandora eta mantala egin nituen.

Pausoz pauso joan nintzen, eta alkandoran ere izurrak egin nituen. Hori izan zen zailena. Gero etxean txalekoa egitea erraza izan zen.

Asko ikasi dut, baita makinaren ojalak egiten ere. Etxean asko praktikatu behar izan nuen.

Zer moduz giroa?

Giro ederra izan dugu. Arazorik ez dut izan. Primeran egon gara.

"USTE NUEN ERRAZA IZANGO ZELA, TOLESTURA EGIN, GOMA BAT SARTU ETA LISTO"

Ikastaroko kideek ere laguntzen ninduten. Hori horrela ez, hobe duzu horrela egitea... Edo Ionek erabilitako hitz teknikoak eta gauzak galdetzen nizkien. Esate baterako, nik ez nekien zer zen *entretela*, eta haiek azaldu zidaten.

Nire errezero bakarria hasieran izan zen, Emakumeen Zentro Zibikoan egiten zela jakitean. Ni horra sartu naiteke? Baina arazorik ez zegoen, eta aurrera egin nuen.

Aurten ere parte hartuko duzu?

Bai, noski. Oraingoan bai, nirea egingo dut.

Herritarrek animatzen dituzu ikastaroa egitera?

Jantzia egin nahi duenak aukera ederra du ikastaro honetan. Gizonezkoak ere pausoa ematera gonbidatzen ditut.



Aurten musika taldeek oholtzan eskainiko dituzte hainbat emanaldi. TXINTXARRI

Erdi Arora atzera begirada, Xacobeo azokarekin

Lume de Biqueira gaita taldeak Lasarte-Oria esnatuko du larunbatean. Mercero plazan ere izango dira ekintzak

Txintxarri

Lasarte-Oriako erdigunea Erdi Arora itzuliko da asteburuan, Xacobeo azokari esker. Santiago de Compostelara doan iparraldeko Done Jakue bidea herritik igarotzen dela gogorarazteko, postuak, musika, antzerkia eta hainbat ekitaldi berezi izango dira egunotan. Udal ordezkariak eta azokaren antolatzaileek atzo egin zuten aurkezpena.

Ostiraletik igandera, ehun bat artisautza postuk beteko dituzte Mercero, Elizatze eta Okendo plazak, eta Kale Nagusia. Hori dela eta, Tajamar eta Ola kaleko

biribilguneen arteko tartea trafikoari itxita egongo da.

Berrikuntza batzuk egongo dira hirugarren edizio honetan.

Musikak garrantzia handiagoa izango du. Oholtzan emanaldiak eskainiko dituzte egunean zehar. Larunbata gauean, esate baterako, musika estilo askotariko taldeen kontzertuak izango dira.

Larunbata goizean Lume de Biqueira gaita taldeak emango dio hasiera azokari, eta 300 bat pertsonako kalejira izango da.

Honez gain, Erdi Aroko eskrima tailerra izango da haur eta helduei zuzendua.



NOAUA! ALDIZKARIA

Erraustegiaren aurka arraunean

Plazetan, kaleetan, aretoetan... eta hondartzan. Hainbat herritar elkartu dira Kontxan, Zubietan eraikitzen ari diren errauste plantari ozen ezetz esateko. Erraustetaren aurkako plataformek luzatutako deiari erantzun, eta hizkiak idatzita zeramatzen afixak hartuta, *Erraustetarik ez, osasuna bai*; *alternatiba badago* esaldia zabaldu dute lau haizetara. Irailean zehar mobilizazio gehiago egingo dituzte. Hilaren 23an, igandearekin, erraustegiaren lanetara martxa antolatu dute.

Bestalde, GuraSOS-ek Bruselara egindako bidaiaren irakurketa egin du. Elkarte indartua bueltatu dela jakitera eman, eta auzia itxi ez dagoela esan dute. Europako gehiengo sindikalaren eta esparru ideologiko anitzaren babesa lortu duela adierazi du taldeak. Gainera, haien salaketak zuzenak direla berretsi dute.

Survival Zombie jokoak berrikuntzak dakartza

Urriaren 6ko gauean Lasarte-Oria zombiez beteko da bigarrenkoz. Aldaketa batzuk izango dira aurtengo jokoan: sei ordutako iraupena izango du, informazio eta makillaje puntua Loidibarrenen egingo da eta probak kokaleku berrietan izango dira

Txintxarri

Gaueko gauaren iluntasunaren jaunak aurten ere zombiez beteko du Lasarte-Oria. Lehengo urteko arrakasta ikusirik, 1.100 bat pertsonak parte hartu zuten, urriaren 6an, Survival Zombie jokoaren edizio berria egingo da herrian zehar. Ekimena gazte gaueko ekintzen barruan kokatzen da. Helburua gazteek aisia alternatiboaz gozatzeko aukera izatea da. 8.000 euroko aurrekontua izango du.

Jokoaren dinamika berbera izango da. Antolakuntza aldetik, berriz, aldaketak izango dira. Jokoak ordu bat gutxiago iraungo du, beraz, gaueko 23:00etan hasi eta 5:00etan amaituko da.

Informazio eta makillaje gunea Loidibarrenen egongo da. "Michelin kirol gunea baino leku zentralagoa da. Azken orduetan, zombi bilakatzen direnak jokatzeko jarraitzeko aukera gehiago ematen du horrek".

Azkenik, kokaleku berriak aztertu dira probak egiteko.

Era berean, jokoaren araudia betetzen zorrotzak izan nahi dute, eta jendeari jokotu bitartean alkoholik ez edateko gogorarazi diete, baita segurtasun neurriak jarraitzeko ere. "Iaz jendea kaleratu zuten". Horregatik, ekimeneko informazio eta araudi guztia Survival Zombieko orrialdean eskuragarri dagoela jakitera eman dute.



Iluntasunaren jaunak asteazkenean zombiak bidali zituen herria ikuskatzera. TXINTXARRI

Sarrerak ere bertan erosi ahal dira. Lasarte-Oriako gazteek (15 eta 30 urte artekoek) 5 euroko beharpena izango dute. Aurkezpenean parte hartu nahi dutenei sarrerak lehenbailehen erosteko ohartarazi diete, "prezioa igotzen joango baita".

Honez gain, aurreko zenbakian aurreratu bezala, ehun sarreraren zozketa egingo da irailaren 18a baino lehen Gaztelekuan izena ematen duten gazteen artean.

Babeslekuak

Sozioekonomia saileko zinegotzi eta teknikariek, Nuria Fernandezek eta Dioni Avilak, lehengo urteko edizioa herriko ostalaritzaren dinamizazio eta aktibaziorako "ekintza ederra"

izan zela aipatu dute. "Jokoa hasi aurretik, tabernetan pintxo potea egin zen eta ostean, gosariak zerbitzatu ziren".

Honetaz gain, asteartean, 11:30ean, Manuel Lekuona kultur etxean ostalariekin bilera egingo dutela jakitera eman zuten. Horretan bizirik dauden pertsonentzat babesleku izan nahi duten tabernak jakinaraziko dituzte.

Aurten ostalariak ez ezik, beste komertzioak ere gonbidatu dituzte babesleku izatera. "Horrelako jokoa interesgarria izan daiteke beste denda batzuentzat ere, hala nola, litxarrerria dendak". Era honetara, herritarrak eta komertzioak gonbidatzen dituzte jokoan parte hartzera.



Mugikortasun astearen antolatzaileak, udal ordezkariekin. TXINTXARRI

Kontzientzia hartu eta ohiturak aldatzeko, mugikortasun ekintzak

Irailaren 20an egingo dituzte ekintzak herrian. Horien bitartez mugikortasunaz kontzientziatu nahi dituzte herritarrak

Txintxarri

Autorik gabeko eguna da irailaren 22a, eta gaiaz jabetu eta ohiturak aldatzeko, askotariko ekintzak antolatu ditu Artelatzen, udalarekin elkarlanean.

Egun bakarrean egingo dira aurten antolatutako ekintza guztiak: irailaren 20an, osteguna.

Bigarren eskuko bizikleten merkatuak irekiko du arratsaldea. Okendo plazan egingo dute, eta 16:30ean zabalduko dituzte ateak, baina bizikletak saldu nahi dituztenek 15:00etatik aurrera entregatu beharko dizkiote antolakuntzari.

400 euro arteko bizikletak bakarrik saldu ahal izango dira, eta 20:00ak arte izango da zabalik.

Bien bitartean, bizikleta martxa abiatuko da 16:30ean Okendotik. Parte hartzaileek bizikleta eta kaskoa eraman beharko dituzte.

18:00etan Ipar Martxako ibilaldia egingo dute Ostadar SKTko taldeak antolatuta. Arratsaldean jolasak ere egingo dituzte kalean.

Manttangorri, doan

Irailaren 21ean, ostiralean, Manttangorri hiribusaren zerbitzua doakoa izango da erabiltzaile guztientzat.

Gamusinoen bila aterako dira gaur gauean Zabaletan

Zabaletako plazan kanpin dendak ezarriko dituzte gaztetxoek, bertan lo egin eta txokolatada gosaltzeko

Txintxarri

Iritsi da hainbeste itxarondako eguna. Gamusinoen bila aterako dira gaur gauean, ostiralean, Zabaleta auzoan. 21:00etan jarri dute hitzordua, kanpin dendak jartzeko auzoko plazan. 21:30ean afalduko dute, bakoitzak etxetik ekarritako janaria. 22:00etan bideoa ikusi, eta 22:30ean hasiko dira gamusinoak bilatzen. 23:30etan jarri dute lotarako ordua. Biharamunean txokolatada prest izango dute gosaltzeko. Zartagina, koilara, linterna eta mendiko arropa eramatea gomendatu dute.



Duela bi urteko irudia. ZABALETA AUZOLAN

Ikasgelatara itzulera

Bi hilabeteko etenaldia amaitu eta egunotan hasi dituzte klaseak Lasarte-Oriako ikasleek. Sasoeta- Zumaburu ikastetxeko haurrek Zumaburuko eraikinean hasi dute 2018-2019 ikasturtea.

Nagitasun apur batekin gehienak, baina indartsu ekin diote bederatzik hilabeteko ikasturteari.



TXINTXARRI

Extremadura zaporedun festak

Asteburu osoan geratu gabe

Azken urteetan baino oztopo eta traba gehiagorekin, baina Lasarte-Oriako Extremadura etxeak Guadalupeko Ama Birjinaren omenezko festak ospatu ditu aurten ere. Antza denez, zuzendaritzako hainbat kidek ez dute jarraitu nahi elkartearen alor kulturala sustatzen; nahi dute elkarte gastronomiko hutsa izatea. Pili Fernandez eta Angel Barrera (beste zenbait kideren laguntzarekin) ez daude horrekin ados, ordea. Lan asko eginez, adin guztietako herritarrek gozatzeko moduko egitaraua prestatu zuten astebururako: Los Cabales talde ezagunaren kontzertua, txaranga, haurrentzako jolasak, extremadurar meza, bazkari eta afariak... Ez da ezer falta izan.

Aurten 40 urte bete ditu Ama Guadalupekoa Extremadura etxeak. Aurtengo festak oraintxe bukatu badira ere, datorren urtekoak antolatzen hasiko dira laster alor kulturala sustatzen jarraitu nahi duten bazkideak.



Nafarroatik etorritako Brotes y Raices taldeak emanaldi ikusgarria eskaini zuen larunbat arratsaldean. TXINTXARRI



Extremaduratik etorritako Los Cabales taldearen emanaldia izan zen asteburuan zehar arreta gehien d



On Ramon Uribe-Etxebarria apaizak gidatu zuen larunbateko meza. Bitartean, hainbat jokotan aritu ziren



Leitu zuena. Lepo bete zen Jaizkibel plaza ostiral gauean. TXINTXARRI



Extremadura etxeke bandera altxatzearekin batera lehertu zen festa giroa Sasoeta auzoan, ostiral iluntzean. TXINTXARRI



Hainbat udal ordezkarik bapo afaldu zuten bazkideen afari ofizialean. Elkartearen 40 urteengatik egin zuten topa. TXINTXARRI



ren gaztetxoak, Jaizkibel plazan. Momia jokoan, esate baterako. TXINTXARRI



Gazte eta helduek ederki pasa zuten larunbat gaueko erromerian. Dantatzera ere animatu ziren asko. TXINTXARRI



Mitxelo Olaizola, elkarrizketaren ondoren, hipodromoko zubian. TXINTXARRI

"Marketina futbolean sartu zenean izorratu zen dena"

MITXELO OLAIZOLA REALEKO TRESNAZAIN OHIA

Erretiroa hartzeko ordua iritsi zaio Olaizolari, Realean 37 urtez lan egin ondoren. Urte horietako bitxikeriak kontatu dizkio TXINTXARRI-ri. "Nire bigarren familia izan da taldea"

Adrian Garcia

Elkarrizketarako hitzordua baino bost minutu lehenago atean itxaroten dago Mitxelo Olaizola (Lasarte-Oria, 1955). Realean 37 urtean lan egin ostean erretiroa hartuta dago, baina ohitura onak ez dira sekula galtzen. Urte luzez futboleko jokalariek Zubietan sartu orduko beharrezko material guztia prest eduki du Olaizolak, eta, horretarako, derrigor beti garaiz ibiltzea. Pozik dago erretiroa hartuta: "Lana gustukoa nuen, baina adinarekin bidaia oso astunak egiten dira". Jokalarietako tratua botako du gehien faltan.

Abuztuaren 6an izan zenuen azken eguna. Nolako izan zen?

Oso ederra. Goizean Zubietara igo nintzen. Danel etorri zitzaidan, minbizia pasatako mutiltxo bat; gurasoekin etorri zen niri agur esatera. Goiko zelaira igotzeko esan zidaten gero. Uste dut egin zenetik bitan bakarrik igo naizela. Hor zeuden jokalariek eta beste langileak itxaroten, eta pasilloa egin zidaten.

Harreman ona duzu jokalariekin. Klubean estimu handitan zaituzte.

Horrela dirudi. Realean emandako denboran jasotako onena hori da, haiekiko tratua; oraindik batzuk deitzen didate, eta noizbehinka elkartzeko gara. **Beti egon zara futbolaren munduan bueltaka. Michelinen entrenatzen zenuen hasieran.**

Bai. Nire anai nagusiak [Julio Olaizolak] Sansen eta Realean jokatzen zuen. Nire fisikoarengatik ezin nuen futboleko jokatu, eta gaztetxoak entrenatzen nituen. Hainbat talde gidatu ditut. Etxean beste gairik ez zegoen, eta futbolaren mundu barruan bizi izan naiz beti.

Nolatan hasi zinen Realean lanean? 1981ean sartu zinen.

Bai, 1981eko ekainaren 1ean hasi nintzen. Krisi handia sufritu dugula esaten dute, baina garai haiek ere latzak izan ziren. Elektrizitatea ikasi nuen, baina bukatzean ez nuen lan askorik. Langabezian nengoela, Julio anaiaren bidez jakin nuen langile bila zebiltzala. Zelaiak landatu, atak margotu, Atotxan erratza pasa, mantenu lanak... denetatik egiten genuen. Hiru hilabeterako sartu nintzen, eta begira...

Gauza asko aldatuko ziren 37 urtean. Pentsa, lehen Realean ez zegoen tresnazainik. Jokalarietako beraiek

zestoetan eramaten zuten arropa garbitzera. Lehen ere profesionala zen, noski, baina orain are gehiago da. Futbolaz gain, beste gauza asko sartu dira tartean. Orain elastikoen koloreekin gauzak asko nahastu dira. Jendea haserretzen zait, baina egia da: marketina futboleko sartu zenean dena izorratu zen.

Zer dela eta?

Salmentetan besterik ez dute pentsatzen. Adibidez, denboraldi batean okurrizten zaie atezaina berdez janztea. Baina kasualitatea, hari ez zaio berdea gustatzen, eta uko egiten dio. Batek esaten dit ezetz, eta besteak baietz. Atezaina taldeko jokalaria bereziena da, eta ez bazaio kolore bat gustatzen, sahiesten saiatuko da. Lehentasuna da hari gustatzen zaion kolorea. Eta epaileek eta telebistek baimena eman behar dute gero. Orain asko modernizatu da. Etxez kanpo jokatzean ordenagailuko programa baten bidez egiten dira kontsultak. Telebistak proba bat egiten du, ziurtatzeko kolore horiek ongi ikusiko direla pantailan. Marketin departamentuok ez dute hori ulertzen.

Traba asko jartzen al dituzte telebistek?

Gasteizen ez ziguten utzi jokatzen gure bigarren ekipamenduarekin, telebistan gaizki ikusiko zelakoan, gauzez zelako partida. Alor horretan asko aldatu da futbola. Ni lanean hasi nintzenean zuloz beteta zegoen Zubietako errepidea; gatza bota behar izaten genuen estaltzeko.

Nolako da tresnazain baten egunerokoa?

Astean zehar, entrenamendu egunetan 7:15ean Zubietan nongoen dagoeneko. Bakoitzak bere armairutxo du, eta erabil dezaketen arropa guztia sartu behar da barruan. Ondoren, boten gelara joan, eta larruzkoei koipea eman behar zaie. Egun plastikozko asko daude, eta horiei ez zaie ezer eman behar. Botak utzi behar zaizkie haien lekuan, zelaira atera behar direnerako. Entrenamendu bakarra bada, toallak eta arropa lehorra jarri behar zaie armairutxoan, gimnasia eta fisioterapia gelara joan behar badute. Eta bitartean, botak garbitu behar dira hurrengo egunerako, aldagela txukundu eta erabilitako arropa garbitzera bidali.

Askok aldatzen da zeregina partida egun batean?



Aita-semeak, elkarrekin lanean hasi zirenean. UNAI OLAIZOLA

Unai semeak hartu du erreleboa

Hutsune handia utziko du Mitxelo Olaizolak Realean, baina jakin dute ongi betetzen lanpostu hori. Unai semeak hartu du erreleboa, eta dagoeneko lanean da tresnazain bezala. "Hasieran nire semea izatearen zama edukiko du. Baina ez dago hor horregatik, hasia zen Realean lanean". Aitarekin batera hasi zen Unai tresnazain moduan, maiatzean. "Egia da, beste edozeinekin baina tematiagoa naiz berarekin, beti bere atzetik".

Hirugarren denboraldia du Unai. Entrenatzaile tituluak izateaz gainera, magisteritza eta kirol arloko goi mailako ikasketak ere baditu. "Ilusioa egiten dit aitaren lana hartzeak. Ardura handia da", esan dio TXINTXARRI-ri. Aholku aldetik ez du arazorik izango, alboan izango baitu beti aita. "Txikitatik bizi izan dut Realarekiko eta futbolarekiko pasioa. Aitak esaten duen bezala, lehenengo gure familia dago, eta, ondoren, Real".

Aitak kontatutakoa eraman behar du orain praktikara. "Ez da egoera berbera, bakoitzak bere egiteko moduak ditu. Jokalariak bera baino gazteagoak izan dira. Nik nire adinekoak ditut asko, edo zaharragoak". Edonola ere, klubaren giro onean bete-betean sartu da. "Primeran hartu naute aldagelan".

Bai. Berdin prestatu behar da arropa, baina tentsioa askoz ere handiagoa da, urduritasun gehiago dago. Entrenamenduetan txantxa giro handiagoa dago, baina desberdina da partida badago. Zu zeu konturatzen zara urduri zaudela, jokalariek ere hala daude, eta bakoitza bere munduan sartzen da.

Jokalariekiko gertutasun horrek haientzako garrantzitsua egiten du tresnazaina. Psikologo eta aholku emaile ere izan zara neurri batean. Bai, agian azken aldian gutxiago, gaztetxoak helduago iristen direlako orain. Lehen, erretzen nuen garaian, gela batean elkartzen nintzen jokalariek kafea hartzera,

eta zigarretaren bueltan hitz egiten genuen.

Lehen izango zen hori, orain ez du inork erreko, ezta?

Nik erretzeari utzi diot, baina badira batzuk oraindik tabakoari ematen diotenak.

Zeri buruz galdetzen zizuten?

Astelehena bazen, bezperako partidari buruz galdetzen zidaten, zer moduz aritu ziren jakiteko. Nire iritzia eskatzen zidaten.

Nola jokatzeko zenuen zuk? Zintzo erantzuten zenien?

Bai, bai. Nik beti esaten nien nire iritzia zela, ez nuela zertan arrazoa eduki behar. Eta baten bat haserretu egiten zitzaidan. "Mitxelo maitea, zer moduz jokatu

dut?", galdetzen zidaten. "Jokatu? Zelaira atera zinen, baina jokatzeko beste gauza bat da", erantzun nion bati behin; noski, ez zitzaion esandakoa gustatu. **Zein zen jokalaririk hori?**

Darko Kovacevic. Eta [Valerio] Karpinek esaten zion: "Zergatik galdetzen diozu ba, badakizu-eta erantzuna". Ondo jokatzeko zutenean kritika onak egiten nizkien, baina gaizki jokatzeko egia esaten nien. Nire egia. Agian erratuta egongo nintzen, baina pentsatzen nuena adierazten nien.

Karpinek ongi hartzen al zituen kritikak?

Oso lagunak ginen. Bere garaian esan nion: "Valerio, hator pixkatean. Zahartzen ari zara, hegalean neuri ere ez zenuke gaituzko abiaduragatik". Ez zidan kasurik egin, baina Getafen alboko atzelariak baloia lapurtu zion; saiatu zen harrapatzen, baina ez zuen lortu, eta biraoka onartu zuen arrazoi nuela. Azkenean euskarri bezala amaitu zuen. Ez nik esan niolako, noski. Nik ikusten nuena besterik ez nion azaltzen.

Azken aldian ere berdin ibili al zara?

Bai, ez naiz sekula aldatu. Vila-realaren aurkako partidaren ondoren idatzi nion jokalaririk bati: "Azkenean ikusi zaitut jokatzeko". Muxu handi batekin erantzun zidan.

Zure zintzotasuna eskertuko zuten jokalariek.

Ez nauzu sekula ikusiko inoren bizkarretik gaizki esaka. Zuzenean sartuko dizut labana. Badakit askotan oker egongo naizela, baina nire iritzia eman dut beti. Adibidez, Iñigo Martinezi botak eman nizkionean azken aldiz, pentsatzen nuen guztia esan nion aurpegira. Eta, halere, oraindik harremanetan gaude, eta afaltzeko geratzekoak gara laster.

Negozi handi bat bihurtu da futbola, eta izar handiak dira egun jokalariek; soldata milioi dunak irabazten dituzte. Uste duzu jauzi handia dagoela futbolarien eta herritar arrunten artean?

Nik ez dut uste jende arruntarekiko horren urrun daudenik. Egia da nik mundu hori barrutik bizi dudala. Realean denak oso gertukoak dira. Hemen haur guztiak joan daitezke aparkalekura, eta jokalariek egoten dira. Oso umilak dira. Nik askotan

esaten diet: "Baserritar batzuk zarete".

Beste taldeetan aldatzen al da hori?

Ez dakit. Roberto Carlosekin, bi Ronaldoekin, [Zinedine] Zidanekin, jende askorekin hitz egin dut, eta ez dira batere harroputzak. Txapeldunen Liga jokatu genuenean Juventusen aurka, Kovacevicek esan zidan haien aldagelara joateko, Buffoni hots egitera. Zigarreta erretzen ari zenez, nik ere harekin batera beste bat piztu nuen, eta hor aritu ginen hizketan.

Jokalaririk ohi askok zoriondu zaituzte erretiroa hartzeagatik?

Bai, eta izugarri pila poztan nau horrek. Ez naiz sare sozialen zalea, baina esan didate askok hortik zoriondu nautela. Juan Gomez, Nihat [Kahveci], Karpin, Kovacevic, Gaizka Garitano...

Nihatek golak zurekin ospatzen zituen, eta ez zituen gol gutxi sartu. Zein izan da zuretzat jokalaririk bereziena?

Bai, hogeiren bueltan sartu zituen denboraldi batean. Askorekin izan dut harreman berezia, zaila da bat aukeratzea. Antoine [Griezmann], Gero Rully, Ruben Pardo, Aritz Elustondo, Mikel Oiarzabal... Ezingo nuke bakar bat aukeratu, denekin moldatu naiz primeran.

Jokalariek ongi ezagutzen zuten gainera, haien maniak ere ikusi behar zenituen. Aipatu daitezkeen baten bat baduzu?

Loco Abreurena ez dut inon ikusi. Denok dauzkagu mania batzuk, baina harena ikusgarria zen. Iritsi zenean kaxa bat eman zidan; amabirjinen postalak, irudiak, arrosarioak... gordetzen zituen. Aldagelan aldare txiki bat eraikitzen zuen. Jantzeko era oso bitxia zuen. Guztiz biluzten zen, eta bainujantzi motz bat jartzen zuen. Barruan errosario bat sartzen zuen,

"JOKALARIEKIKO TRATUA BOTAKO DUT FALTAN. HARREMAN BEREZIA IZAN DUT ASKOREKIN"

"MIN HANDIA EMATEN DIT REALAZ GAIZKI ESAKA ENTZUTEA, EZIN DITUT PARTIDAK TABERNAN IKUSI"

barrabiletan. Oin zola bakoitzean hamahiru gurutze egiten zituen tira batekin, eta, azkenik, amabirjin baten barruan ura gordetzen zuen, burua kendu eta gorputz osoan botatzen zuen. Ikustea ikusgarria zen. Beti errito berbera partidaren aurretik.

Zuk ere ba al zenituen maniak?

Nik asko nituen. Askok Partida bat galtzen bagenuen, garajetik ateratzen itzulinguru bat egiten nuen Anoetara joateko. Ea zorrea aldatzen zen. Promesa asko egiten nituen, Lourdes Txikira oinez joatekoa, adibidez. Botak jartzeko modua aldatzen nuen, espinillerak beti zelaira begira jartzen nituen... Askok nituen. Momentuan uste duzu lagungarriak izango zaizkizula, nahiz eta gero hala ez izan.

Realeko langile zinez titulatuak irabazi dituzu.

Bai, baina niretzako berezian ez dira titulu horiek, Lehenengo Mailara igo ginenean baizik. Hori da nire titulurik gogoangarria.

Nola bizi zenuen?

Oso zaila da hitzekin azaltzea. Oso hunkigarria izan zen. Partida amaieran delegatua eta biok aulkiaren ondoan geunden. Ezin genion urduritasunari eutsi, eta erretzen hasi ginen zelaian. Laugarren epailea gerturatu zitzaigun errieta egitera... Izugarria izan zen. Denekin besarkatu ginen; Antoine [Griezmann] zuzenean etorri zen nigana ospatzera, "papi, papi" oihuka.

Ezaguna da oso urduri jartzen zarela partidetan. Kanporatua ere izan zara behin edo behin.

Bibotea jaten nuen oso urduri nengoen. Aulkiaren barruan jende askok egiten du garrantzi, eta oharkean igaro zaitezke. Baina gero aulki gehigarrian hasi nintzen esertzen, eta hor ezin da disimulatu. Azken aldiaz penalti batengatik kanporatu ninduten.

Orain ere urduri jartzen al zara partidetan?

Bai, etxean ikusten ditut, ezin dut tabernara jaitsi. Baten bat jokalariek gaizki esaka aritzen bada min asko ematen dit.

Nola ikusten duzu Real denboraldi honetan?

Ez zait gehiegi gustatu. Entrenatzaileaz gainera, hamabi pertsona berri daude lantalde teknikoan. Aldaketa handia da, eta ohitu beharko dira.

Landutako guztia zelaian erakusteko ordua

Larunbatean ekingo dio ligari Erregional Preferenteak, etxean, Rotetaren aurka, 17:15ean. Udan zehar egindako lan guztia zelaian erakusteko ordua da eurentzat. Iazko esperientzia eta fitxaketak baliatuta, pauso bat aurrera eman nahi du taldeak

Iñigo Gonzalez Sarobe

Hilabete luzez gogor entrenatu eta gero, ligari ekingo dio bihar, larunbatez, Ostadar SKTren Erregional Preferente mailako taldeak. Etxean, Roteta igo berriaren aurka, 17:15ean. "Ez da norgehiagoka erraza izango. Martutene taldetik jokalaria ugari fitxatu dituzte; bi aldiz jokatu genuen elkarren aurka iaz, eta puntu bakarra lortu genuen". Asier Aizpurua entrenatzailearen hitzak dira.

Hiru puntuak batu nahi ditu Ostadarrek, jakina, baina Aizpurua garrantzitsua da udan zehar landutakoa berdegunean erakustea. "90 minutuetan zehar lehiakorrek gabela erakutsi behar dugu, egiten ari garen lanean %100ean sinesten dugula".

Asier Aizpurua eta Ander Rekondo eseriko dira aulkian aurten ere. "Jokalariekin batera hazi egin gara gu ere; iazko udakoekin alderatuta, taldearen sentsazioak askoz hobekak dira". Iaz egin zuten debuta Erregional



Asier Hazas erdilaria, baloiarekin, Axularren aurkako lagunartekoan. TXINTXARRI

Preferente mailan; errepikatzea erabaki dute. "Ea gai garen iazko komeriak atzean utzi eta urte polita egiteko; zarata askorik egin gabe, pauso bat eman nahi dugu aurrera, eta partida guztiak irabazteko aukera eduki", dio Aizpurua. Ozta-ozta eutsi zioten zuten mailari iaz: promozioa jokatu behar izan

zuten Aretxabaletaren aurka. Galdu egin zuten, baina goiko kategorietako igoera eta jaitsierei esker Erregional Preferentean lehiatuko dira aurten ere.

Kalitatezko fitxaketak

Uda hasieran hutsik egoten da futbol zelaia, mugimendurik

gabe. Bulego-lana izan ohi da nagusi ekainean eta uztailan. Aizpurua eta Rekondok ez dituzte hartu oporrak, eta taldea indartzeko hainbat fitxaketa egin dituzte: Haritz Berasategi, Eneko Garcia eta Adei Zarra aurrelariak; Alex Rodriguez erdilaria eta Andoni Sanchez defentsak. Berasategik, Sanchezek eta Rodriguezek berriro jantziko dute kamiseta urdin-beltza; erregional mailan aritutakoak dira duela zenbait denboraldi. Zarra eta Mate Sanse taldean ibili dira, jubilenen Euskadiko Ligan, eta Estatu mailara igotzea lortu dute. Erregional mailan beste talde bat aterako du aurten klubak, eta bertan ariko diren jokalariek ere lagunduko dute denboraldi luzean zehar.

Ostadarren hamaikakoa ligako gazteenetakoa izan zen iaz: 20 urte pasatxo, batez beste. Iaz taldera iritsitako gazte gehienek jarraitzea erabaki dute. Kategoria hauetan garrantzitsua da esperientzia, eta iaz ikasitakoa aintzat hartuta, urrats bat eman dute aurrera guztiek. Hori erakutsi dute behintzat denboraldi-aurrian. Ligako neurketak oso bestelakoak dira, ordea; egindako lan guztia zelaian erakusteko ordua da.

Hasiera ez da izango samurra Ostadarrentzat: Rotetarekin indarrak neurtu eta gero, Tolosara joango dira; Mundarro jasoko dute Michelinen ondoren; eta Hernaniren aurka jokatuko dute Zubipen, laugarren jardunaldian.

Ongi hasi dute liga herritarrek

Lehenengo eta bigarren mailan jokatzen duten herritarrek ongi hasi dute liga. Realak 2-3 irabazi zuen Tenerifera egindako bisitan. Partida zaila izan zuten, baina markagailua irauli zuten azkenean. Iraia Iparragirre ez zen hamaikakoa atera, partida bukatzeaz zegoela zelairatu. Bestalde, Bigarren Mailan Añorgak 4-0 irabazi zion Oliver taldeari. Izaskun San Anicetok bi gol sartu zituen garaipenean. Bestalde, Athletic B-ko Irati Urruzolak 0-0 berdindu zuen Osasunaren aurka.



San Aniceto, partidaren. CONCHI SANCHEZ

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

ERREGIONAL PREFERENTEAK

Ostadar SKT - Roteta CD

Larunbata. 17:15. Michelinen.

ERREGIONALEN 1. MAILA

Euskalduna SD - Ostadar SKT

Larunbata. 15:30. Ubitarte, Andoainen.

JUBENILEN OHOREZKO MAILA

Beasain SD - Ostadar SKT

Larunbata. 16:30. Igartza, Beasainen.

JUBENIL 1. MAILA

Ostadar SKT - Hernani CD

Igandea. 10:30. Michelinen.

KADETEEN OHOREZKO MAILA

Ostadar SKT - Añorga KKE

Larunbata. 12:00. Michelinen.

KADETE 1. MAILA

Urnieta A KE - Ostadar A SKT

Larunbata. 10:00. Urnietan.

Ostadar B SKT - Danena B KE

Larunbata. 14:00. Michelinen.

1. MAILA

Real Sociedad - Malaga

Igandea. 12:00. Zubieta, Donostian.

2. MAILA

Oiartzun - Athletic Club

Igandea. 12:00. Karla Lekuona, Oiartzunen.

Berriozar - Añorga

Igandea. 12:45. Berriozarren.

2. B MAILA

Sanse - Fuenlabrada

Igandea. 12:00. Nuevo Matapiñonera, San Sebastián de los Reyes, Madriren.

SASKIBALOA

SENIORRA, LAGUNARTEKOA

Ostadar SKT - BKL

Larunbata. 11:00. Kiroldegian.

JUNIOR ERRENDIMENDUA

CD Erroibide Irun - Ostadar SKT

Larunbata. 16:00. Azken Portu kir., Irunen.

KADETE ERRENDIMENDUA

Ostadar SKT - Cafes Aitona Askatuak

Larunbata. 16:00. Kiroldegian.

IGERIKETA

V. FLYSCH BELTZA ZEHARKALDIA

Irati Arzallus herritarrek. V. Flysch Beltza itsas zeharkaldian parte hartuko du. Igandea. 09:30 Mutrikun.

LASTERKETA

PORRONTXO JAIK

Herriko lasterkari batzuk Porrontxo Jaietako herri krosetan parte hartuko dute.

Larunbata. 20:00. Egia, Donostia.

BAXURDE KROSA

Hainbat herritarrek XI. Baxurde krosetan parte hartuko dute.

Igandea. 10:30. Usurbilen.

PILOTA

PROFESIONALA, ESKUZ BINAKAKOA

Iribarria eta Ruiz - Arteaga II eta

Ladis Galarza

Igandea. 17:00. Adarraga, Logroñon.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA, 1. MAILA

Intza - Hernani

Larunbata. 11:00. Michelinen.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA, 2. MAILA

Intza - Azkoitia

Larunbata. 11:00. Michelinen.

TXIRRINDULARITZA

GOIERRIKO KLASIKA

Herriko hainbat txirrindularik Goierriko klasikan parte hartuko dute. Igandea. 09:00. Urretxun.

BTT

LESAKAKO BTT IBILALDIA

Herriko txirrindulari batzuk

Lesakako BTT ibilaldian izango dira lasterka.

Igandea. 09:00. Lesaka, Nafarroan.

ERRUGBIA

OHOREZKO MAILA

FC Barcelona - Hernani CRE

Igandea. 12:30. La Foixarda, Bartzelonan.

OHOREZKO B MAILA

CRAT A Coruña - Babyauto Zarautz

Igandea. 12:00. A Coruña.

EUSKAL LIGA, LAGUNARTEKOA

Hernani/Athletico San Sebastian/ Txingudi - Rugby Burgos

Igandea. 12:00. Landare zelaian, Hernanin.

Bolada txarra apurtzea lortu du Chourrautek

Seu d'Urgelleko Munduko Kopan zilarrezko domina kolporatu du lasarteoriatarrek. Ate bat ukitu, eta bi segundoko zigorra ezarri diote epaileek, eta, halere, urretik segundo bat eta 77 ehunetara geratu da. "Pozik nago, egindako aldaketak ongi ateratzen direlako"

Txintxarri

Seu d'Urgell berezia da Maialen Chourrautentzako. Lleidako herri horretan entrenatzen du Lasarte-Oriako piraguistak, Katalunian, eta ongi baino hobeto ezagutzen du kanala. Eta horrek izan du eragina: Munduko Kopako proba jokatu dute asteburu honetan, eta zilarrezko domina irabazi du. Rio 2016ko Olinpiar Jokoetako txapeldunak jaisiera bikaina osatu du (104,45 segundu). Gertu izan du garaipena; 21. atea ukitu, eta epaileek bi segundorekin zigortu egin dute. Azkenean, segundo bat eta 77 ehuneko gutxiago egin ditu Ricarda Funk Alemaniako palistak. Hirugarren geratu da Erresuma Batuko Mallory Franklin. Edonola ere, emaitza ikusgarria da. Ez du rankinga asko aldatu, baina oso baliagarria da; azken probetako dinamika txarrak irauli ditu Chourrautek. "Zilar honek asko esan nahi du. Negu zaila pasa dut, lesioak tarteko. Udan, Munduko Kopako lehen probetan ez naiz ondo ibili, eta aldaketa asko egin behar izan ditut. Ondo ateratzen da proba", esan du Chourrautek BAT Basque Teamek argitaratutako bideoan.

Ez du nolana hiko balentria egin Chourrautek. Finalaz gain, beste



Maialen Chourraut, Seu d'Urgellen. BAT

bi jaisiera egin ditu, eta denetan lehen hiru onenen artean sailkatu da. "Munduko piraguista onenak etorri dira, sasoirik onenean".

Munduko Kopa

Hasiera ona eduki ez arren, Munduko Kopan hamahirugarren postua eskuratu du Chourrautek, 151 punturekin. Halere, epe motzera begira indarra emango dio emaitzak, urte gorabeheratsuen ondoren morala puztuko baitio. Izan ere, bere onenean egon gabe azkar jaisi daitekeela erakutsi du.

Hurrengo asteetan hitzordu garrantzitsuak daude piraguismoan; iraila amaieran Rio de Janeiroan jokatu dute Munduko Txapelketa. Kanal horietan lortu zuen 2016an urrezko olinpiar domina.

Hurrengo urtean, aldiz, Seu d'Urgellen izango da mundiala, eta hor banatuko dira Tokio 2020rako txartelak. Munduko Txapelketa ez du urrerik lortu (zilarra eta brontzea ditu), eta etxean irabaztea du helburu. Edonola ere, hurrengo olinpiar jokoetan du helburu nagusia.

Ostadarreko saskibaloitaldeak aurkezpena egingo dute bihar

Ostadar SKTko senior neskek hilabete amaieran jakingo dute liga hasteko eguna. Lagunarteko partidak jokatu dute bihar

Txintxarri

Kirol ikasturte berriari ekingo diote Ostadar SKTko saskibaloitaldeak. Ligako partidekin hasi aurretik, taldearen aurkezpen ekitaldia egingo dute, bihar, larunbatean, 09:00etan.

Argazkiak ateratzen ostean, lagunarteko partida jokatu du emakumezkoen senior taldeak, BKL Beasain taldearen aurka 11:00etan. Gainerako taldeek ligari hasiera emango diote asteburu honetan jokatu dituzten partidekin.



Senior neskek. TXINTXARRI

Raul Gomez Margallok irabazi du Urgull Gaztelutxo krosa

Gorka Gil herritarrek ere parte hartu du lasterketan, eta laugarren postuan amaitu du 4,2 kilometroko ibilbidea

Txintxarri

Donostiako Urgull mendia zeharkatu dute pasa den asteburuan, eta bertan parte hartu dute zenbait korrikalari lasarteoriatar. Raul Gomez Margallok lehen postuan amaitu du, bera izan da lasterketako garailea, eta harekin batera, Gorka Gilek ere parte hartu du. Hark laugarren postuan amaitu du.

4,2 kilometrotako ibilbidea osatu behar izan dute korrikalari helduek. Gaztetxoentzat ere izan da aukera, baina hauek 1,2 kilometro egin dituzte.



Raul Gomez, iazko krosean. TXINTXARRI



Plaza Dantza Saioak antolatzeneko bilera

Eguna: Asteartea Irailaren 25a • 20:00etan.

Tokia: Sasoeta-Zumaburu ikastetxea

(Sasoeta eraikineko gimnasioan)

Informazioa: Ttakunen bulegoan • kultura@ttakun.eus

943 37 14 48 • 695 785 389

Ipar martxako taldea, pausoz pauso bidea egiten

Irailaren 22an hasi eta hilero irteera bat egingo du Ostadar Ipar Martxa taldeak. Pazko astean hegazkina ere hartuko dute Menorcara joateko. Ekintza berezietan parte hartuko dute eta lehenengoz, Lasarte-Oria Bai! krosean lehiatuko dute

Txintxarri

Ostadar elkarteko Ipar Matxa sailak prest ditu makilak batetik bestera kilometroak egiteko. Ikasturteari honetan zortzi irteera egingo ditu taldeak.

Lehena irailaren 22an izango da. Autobusa hartuta egun pasa joango da taldea. Atxondoko Arrazola auzotik Besaide mendira dauden 10 kilometrotako ibilbidea egin, eta Elorrioren bazkalduko dute. Bakoitzak bere bazkaria eraman beharko du, taldeko kideek azpimarratu dutenez.

Donostia, Hendaia, Zumaia eta Lasarte-Oriako bide ezberdinetatik barrena ibiliko da Ipar martxako taldea. Ikasturteari amaiera emateko, hurrengo urteko maiatzaren 25ean, Lasarte-Oriako mugak ibilbidea egin eta bazkari gozoa dastatuko dute.

Taldea osatzeko ere Menorcara egingo du bidaia. Iaz lehenengoz joan ziren, eta esperientzia urtero errepikatzeke asmoa dute. Ekintza berezi bezala, urriaren 21ean, Kursaallean Aspanogiren alde egingo den emanaldian parte hartuko dute. Hau guztiaz gain, aurten lehenengoz Lasarte-Oria Bai! Krosean parte hartuko dute ipar martxako kideek. Proba modura egingo da eta 40 martxalari izango dira lasterketan.



Menorcara joango dira aurten ere Ostadar Ipar Martxako kideak. OSTADAR IPAR MARTXA

Ikasturteko irteerak

- **Irailak 22** Atxondo, Arrazola-Besaide bidea.
- **Urriak 21** Lasarte-Aginaga, Buruntzaldeako ibilbideen egunaren barruan
- **Azaroak 24** Zumaia- Getaria-Zumaia
- **Urtarrilak 26** Hendaia
- **Otsailak 23** Ametzagaina parkea
- **Martxoak 23** Donostiako hiru hondartzak
- **Apirilak 13** Ulia
- **Pazko astea** Menorca
- **Maiatzak 25** Lasarte-Oriako mugak eta bazkaria



Mutrikutik aterako dira asteburu honetan Flysch Beltza zeharkaldian. FLYSCH BELTZA

Itsas zeharkaldien denboraldia itxiko dute asteburu honetan

Kontxako Badiakoa jokatu dute, eta hiru herritar lehen hamarren artean geratu dira senior emakumezkoetan

Txintxarri

Igeriketara urte osoan praktikatzeko den kirola da, baina uda partean aprobetxatu ohi dute igerilekutik kanpo aritzeko. Euskal Herriko kostan izaten dira itsas zeharkaldi ugari. Azkenetarikoa jokatu zuten asteburu honetan, Donostian: Kontxako Badiakoa, klasiko bat udako sasoiaren zortzi lasarteoritarrek parte hartu zuten, eta maila ona erakutsi. Senior nesketan hiru geratu ziren lehen hamarren artean. Leire eta Ainhoa Martin ahizpak hirugarren eta laugarren, hurrenez, hurren. Irati Arzalluz hamagarren postuan iritsi zen. Bestalde, Juan Vicente Martin seigarren sailkatu zen gizonezko Master B kategorian.

Hain zuzen, Arzalluzek igande honetan jokatuko du azkeneko

proba, Flysch Beltza Igeriketara Zeharkaldia. Mutrikun itsasoratu eta Debarainoko 3.000 metroak egingo ditu.

Flysch Beltza

Proba erakargarria zaio Arzalluzi; lagun bati esker eduki zuen haren berri. Bi distantzia daude berez. Lasarteoritarrek egin behar duena, eta luzeago bat, Ondarroa eta Deba arteko 6.000 metroak lotzen dituen. "Agian hurrengo urtean animatuko naiz, erronka polita da distantzia hori".

Kontxako Badiakoa baino luzexagoa da Debako zeharkaldia, baina tamaina horretako beste batzuk egin ditu Arzalluzek, Getaria-Zarautz, esaterako. Itsaso ona edukitzea besterik ez du behar orain.

Intzako pilotariek etxean hasiko dute Gipuzkoako txapelketa

Elkartearen pilota eskolako izena ematea ireki da. 2010 urtean eta aurretik jaiotako haurrek parte hartu dezakete

Txintxarri

Pilota denboraldia larunbatean hasiko dute Intzako senior mailako bikoteek. Michelin kirol guneko pilotalekuan jokatuko dute Gipuzkoako txapelketako lehen partida; finalak eta maila jaitzierako partidak, berriz,

azaroan izango dira. Lehen mailan eta bigarren mailan lehiatuko du herriko taldeak.

Lehen mailako bikoteak, Jon Pello Artetxek eta Mikel Elolak, aurreko denboraldian mailari eustea lortu zuen oza-oza; aurten estutasunik gabe mantentzea

espero dute. Bihar, larunbata, Hernaniko bikotearen aurka jokatuko dute.

Haritz Urkia eta Aritz Solano, Hirugarren Mailako txapeldunek, igoera lortu ostean Bigarren Mailan jokatuko dute. Maila honetan geratzeko asmoa dute, baina ez dute lan erraza izango. Lehen partidaren Azkoitia izango dute aurrez aurre.

Bestalde, Intzako Pilota Eskolako kideek irailaren 18an, asteartean hasiko dute ikasturte berria. Hitzordua 18:30ean da, Michelin kirol guneko pilotalekuan.

Eskolan 2010 urtean edo lehenago jaiotako Lasarte-Oriako neska eta mutilek parte hartu dezakete.

Izena emateko, astearte edo ostegun batean, 18:30etik 20:00etara, pilotalekura hurbiltzea nahikoa da. Eskolari buruzko informazioa zehatza ere, saio hauetan eskainiko dute arduradunek.

Lau t' erdiko txapelketa

Hau guztiaz gain, Axier Arteagak lau t'erdiko txapelketako sailkapen partida jokatuko du

irailaren 28an. Aurrez aurre Artola izango du.

Enpresa bakoitzak sei jokalaririk aurkeztuko ditu txapelketara. 2. mailako lau t'erdiko txapeldun Agirre zuzenean sailkatu da. Baina Arteaga eta Artolak Asegarceren postuetako bat izango dute jokoan.

Larunbata honetan, Adarraga pilotalekuan, Errioxan izango da. San Mateo torneoko finalaurrekoen atariko partida jokatuko du, Ladis Galarzarekin. Iribarria eta Ruiz izango dituzte aurrez aurre.

ZORION AGURRAK



Imanol
Zorionak. Ritxar, Begoña, Patxi, Itziar, Pablo eta Maiteen partez.



Antonio eta Bitori
Muxu handi-handi bat Septien eta Murillo familiaren partetik. Ondo pasa zuen 50. urteurrenean.




Ramon Agirre
Zorionak Ramon Zinemira sariarengatik. Gazte Klubaren partetik.



Arantxi
Zorionak!!!! Zure eguna ederki ospatu izana espero dugu. Zorte on abentura berrian!! Ttakuneko lankideen partetik.



Unax
Zorionak Unax!!! Ze zoriontsu egin gaituzun bederatzi urte hauetan, asko maite zaitugu! Aita, ama, Oier eta Maddi.



Espe eta Ivan
Zorionak bikote, zuen familien partez!! Jada 74 eta 14, ospakizuna mundiala izan beharko da!! Muxu potolo pila eta urte askotarako!! Asko maite zaituztegu!!



Uxue
Zorionak printzesa zure 8. urtebetetzean! Muxu handi bat familiaren partez!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu Txintxarri-ren bidez zoriontzeko:

Internet

Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurra eta bidali zure zorion agurra formularioa bete. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

Asteazkeneko 16:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

OHARRAK

Biyak Baten txangoa

Biyak-Bat erretiratuen elkarteak irailaren 26an Fríasera, Burgosera irteera antolatu du.

Autobusa 8:00etan aterako da elkarte aurretik. Fríasen Erdi Aroko ibilbide gidatua egingo da. Honetan gaztelua eta eliza ezagutuko dituzte irteeran izena ematen dutenek. Bazkaria Ortiz jatetxean izango da.

Izena ematea irailaren 17an, astelehena irekiko da. Astelehenetik ostiralera goizeko 10:30etik 12:30era dago izena emateko aukera elkarte bulegoan. Bazkideek 35 euro ordaindu behar dituzte; bazkide ez direnek, berriz, 45 euro.

Adineko pertsonen omenaldiko bazkaria

Adineko pertsonen omenaldi astearren barruan, urriaren 7an, igandea, bazkaria antolatu dute Michelinen.

500 pertsonentzako lekua dago. Irailaren 5ean, asteazkenean, irekiko da txartelak eskuratzeko epea eta irailaren 25ean amaituko da. Biyak Bat elkarte

bulegoan goizez 10:30etik 12:30era egingo da banaketa eta 8 euro balio dituzte. Antolatzaileek eskudirutan ordaindu behar dela gogorarazten dute.

Bazkariaz gozatu ahal izateko baldintzak Lasarte-Orian erroldatua egotea eta 1953 urtean edo lehenago jaioa izatea dira. Salbuespen dira 1953 urtearen ondoren jaiotako bikotekideak. Lasarte-Orian erroldatuak ez badaude, gainera, 29,15 euro ordaindu beharko dituzte.

Kiroldegiko neguko ordutegia

Herriko kirol instalazioetan neguko ordutegia indarrean dago irailaren 1etik. Kiroldegia astelehenetik ostiralera 7:00etatik 22:30era egongo da irekia. Larunbatetan, 9:00etan irekiko ditu ateak eta 20:00etan itxi eta igandetan berriz, goizez soilik erabili ahalko da 9:00etatik 13:00etara. Kirol Guneko erabilera ordutegia astelehenetik ostiralera 15:30etik 22:30era da. Larunbatetan goiz eta arratsalde, 9:00etatik 20:00etara eta igandetan goizez 9:00etatik 13:00etara.

JAIOTAKOAK

Danel Muñoz Montilla. Irailaren 9an.
Mana Mohamed Mahmoud. Irailaren 8an.
Vega Perez Fernandez. Irailaren 7an.
Iraia Obineta Bermejo. Irailaren 7an.
Hugo Tedone Moreta. Irailaren 6an.

HILDAKOAK

Conchi Miranda Mateos. Irailaren 12an.
Pedro Mari Unanue Aguirre. Irailaren 11n.
Javier Gonzalez Arozena. Irailaren 10an.
Daria Gavilan De Arriba. Irailaren 6an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 14 ORUE
Larunbata, 15 URBISTONDO
Igandea, 16 URBISTONDO
Astelehena, 17 GANDARIAS-URIBE
Astearte, 18 URBISTONDO
Asteazkena, 19 DE MIGUEL
Osteguna, 20 LASA

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu: Urbietakalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERRI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINITZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

SUDOKUA

	5			3			7
	2		1	6		5	4
6			7	5		2	
8	6	4			5	7	2
9	1	5	2			4	8
		2			4		5
2					7	5	1
		6	8			3	4
4			5	3			

KOMIKIA



ESKELAK JARTZEKO: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioa

- ▶ Hileta egunean eskela Txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean: 80€

Txintxarri aldizkaria: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA
ALOKAIRUAN EMAN
Logela bakarreko apartamentua alokatzen da Iñigo de Loiolan (Eroski ondoan). Laugarren solairuan da eta igogailua badago. Urria hasieratik aurrera izango da alokatzeko aukera. 616 164 823.

Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailua etxe osoan. Telefonoa: 649526766

LANA
ESKARIA
Pertsona zaharrak zaintzeko eskaintzen naiz. Externa bezala, orduka,

gauetan ospitaleetan, asteburuetan... Telefonoa: 943404015/606661048.


SALEROSKETAK
Mobile home bat salgai. 4/6 pertsonentzat. 8x3,5 m. Harremanetarako telefonoa: 686 245 146.

Kotxe berria saltzen da, Mikrokrar marka, karnetik

gabea. Interesatuak deitu 608 417 794 edo 670 236 356 telefonoetara.

HEZKUNTZA
Eskolak ematen dira etxean; latina, eskolarako laguntza, ingelesa. Ekonomikoa. Telefonoa: 600 77 60 68

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

PUBLIZITATEA
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



DONOSTIA Donostia Festibala. Donostia Festibala, berriro ere, Hipodromoan izango da. Hiru eszenatokietan estilo ezberdinetako hamaika talde izango dira, Kase.O, C-Tangana eta Berri Txarrak horien artean. Musikaz gain, ustekabeko ekintzak ugari izango da kontzertuetara doazen entzuleentzat. Hipodromoan, gaur, ostirala eta larunbata.



LASARTE-ORIA Xacobeo azoka. Donejakue bideetako bat Lasarte-Oriatik igaro dela gogorarazteko, hiugarrenez Xacobeo azoka izango da Lasarte-Orian. Herritarrak erdi aroan murgilduko dira asteburuan. Musikaz, antzerkiaz eta postuez beteko dira Okendo plaza eta Kale Nagusia. Haurrentzako tailer eta erakusketak ere izango dira egunean zehar eta gauetan kontzertu, zein ekitaldi bereziak. Lasarte-Oriako kaleak, asteburua.

OSTIRALA 14

LASARTE-ORIA Xacobeo azoka

Xacobeo azokaren lehen eguna izango da:

17:00etan:

Azoka, tailer, haur joko eta erakusketen hasiera eta kalejira musikala antzerkiarekin.

17:30ean, Eulali ipuin kontalaria eta Human no limits antzerkia.

17:45an, hegazti harraparien erakustaldia.

18:00etan, Txotxongiloak Teatro infinitoren eskutik eta Maya juglarea eta Karina dantzaria kalejiran.

18:30ean, zirku-jokoak.

19:00etan, Eulali ipuin kontalaria eta txotxongiloak.

19:30ean, hegazti harraparien erakustaldia.

20:30ean, *La reina de los mares y el pez azul* antzerkia.

21:00etan, Tailer eta erakusketen itxiera eta Lugh taldearen kontzertua, musika irlandar eta zelta.

22:00etan, Human no limits eta Acibreira taldea kalejiran.

Lasarte-Oriako erdialdea, 17:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Gamusinoen gaua

Zabaleta auzoko lagunek *Gamusinoen gaua* antolatu dute beste urte batez:

21:00etan, kanpin-dendak prestatu.

21:30ean, afaria. Bakoitzak etxetik eramana.

22:00etan, bideoa.

22:30ean, Gamusinoen bila!

23:30ean, denak lotara.

09:00etan, gosaria.

Zabaleta auzoa, 21:00etatik aurrera.

DONOSTIA Donostia Festibala

Donostia Festibaleko lehen egunean musika estilo ezberdinez gozatu ahal da. Bi egunetako sarrera, 52 euro; egun batekoa, 28 euro.

Hipodromoan, 18:25etik aurrera.

LARUNBATA 15

LASARTE-ORIA Xacobeo azoka

Xacobeo azokaren bigarren eguna izango da:

10:00etan:

Kalejira erraldoia Lume de Biqueira gaita taldearekin.

Azokan parte hartzen duten taldeen aurkezpena.

11:00etan:

Azokaren hasiera emate ofiziala agurra eta pregoiarekin.

Tailer, haur joko eta erakusketen irekiera eta hegazti harraparien hegaldia.

Musika eta antzerki taldeak azokan.

12:00etan:

Eulali ipuin kontalaria. Pedrit Onewheel, Amalur eta iratxo berdea kalejiran.

Espalladoiro eta galiziar taldeak.

12:30ean, Barzonia azokan zehar.

12:45ean, Acibreiraren emanaldia.

13:00etan:

Human no limits eta zirku-jokoak. Lume de Biqueiraren emanaldia.

13:30etan:

Pedrit Onewheel, gizon orkestra. *Los cuentos del Gato Soñador* Txotxongiloen antzerkia.

Hegazti harraparien hegaldia.

14:00etan, musika eta antzerkia.

17:00etan:

Azoka, tailer, haur joko eta

erakusketen irekiera.

Pedrit Onewheel eta Tximeleta Erraldoia kalejiran.

Ipuin kontalaria eta txotxongiloak.

17:30ean:

Musika eta antzerkia azokan zehar. Hegazti harraparien erakustaldia.

Barzoniaren emanaldia.

17:45etan, Acibreiraren emanaldia.

18:00etan:

Human no limits azokan zehar.

Pedrit Onewheel, gizon orkestra.

Lugh taldearen kontzertua.

18:30ean, eulali ipuin kontalaria eta hegazti harraparien hegaldia.

19:00etan, Barzoniaren emanaldia eta *Las alas de doña Margarita* txotxongiloen antzerkia.

19:30ean, Human no limits.

20:00etan, Musika azokan zehar.

20:30ean, *El Dragón y las bailarinas* txotxongiloen antzerkia.

21:00etan:

Tailer eta erakusketen itxiera.

Konzertua, Okendo plazan:

Lugh, Acibreira, Sessions eta Barzonia.

22:30ean, musika eta antzerkia batzen dituen ikuskizuna.

Lasarte-Oriako erdialdea, egun osoa.

LASARTE-ORIA Pintxo musika

Aterpea merkataritza elkarteko zazpi ostalariek Pintxo musika ekimenean parte hartuko dute: Txartel kafetegia, Txema taberna, Primeran taberna, Arkupe taberna, BUS kafetegia, Buenetxea kafetegia eta Totx taberna. Egun osoz, pintxo gozoak dastatu ahal dira eta taberna batzuetan estilo ezberdinetako musika ere izango da:

12:00etatik 15:00etara, musika zuzenean, BUS kafetegia.

12:00etatik 15:00etara, Ibaia Berriak taldea, Buenetxea kafetegia.

18:00etatik 22:00etara, Big Time Selektors & Jah Inity Sound, Totx taberna. Lasarte-Oria, egun osoa.

DONOSTIA Donostia Festibala

Donostia Festibaleko bigarren eguna egingo da.

Hipodromoan, 18:25etik aurrera.

IGANDEA 16

LASARTE-ORIA Xacobeo azoka

Xacobeo azokaren azken eguna izango da:

11:00etan, azoka, tailer, haur joko eta erakusketen irekiera.

11:30ean, Acibreira eta Barzonia azokan zehar, Eulali ipuin kontalaria eta Human no limits.

12:00etan, *Jugleando en colores* antzerkia.

12:15ean, hegazti harraparien erakustaldia.

12:30ean, Pedrit Onewheel eta Barzoniaren emanaldia.

13:00etan, Human no limits eta zirku-jokoak.

13:15ean, Eulali ipuin kontalaria.

13:30ean, Acibreira azokan zehar.

14:00etan, hegazti harraparien hegaldia eta Pedrit Onewheel gizon orkestra.

17:00etan, azoka, tailer, haur joko eta erakusketen irekiera.

La domadora y el dragón antzerkia.

17:30ean, Eulali ipuin kontalaria.

18:00etan, hegazti harraparien hegaldia eta Pedrit Onewheel.

18:30ean, Eulali ipuin kontalaria.

19:00etan, Barzoniaren emanaldia

19:30ean, hegazti harraparien hegaldia eta Acibreira azokan zehar.

20:30ean, Human no limits.

21:00etan:

Tailer eta erakusketen itxiera.

Acibreira azokan zehar.

Barzonia taldearen emanaldia.

21:30ean, azokaren amaiera.

Lasarte-Oriako erdialdea, egun osoa.

LASARTE-ORIA Bulego ibiltaria

Lasarte-Oriako alkatea eta hainbat batzordeburu herritarren proposamenak eta kexak jasoko dituzte Herritarren Bulego Ibiltarian. Bitartean, haurrentzako puzgarriak eta tailerak ere izango dira.

Jaizkibel plaza, 10:00etatik 14:00etara.

OSTEGUNA 20

LASARTE-ORIA Mugikortasun astea

Mugikortasun asteko jokoak egingo dira:

16:30etik 19:30era, herritarrek bizikletak saldu eta erosteko aukera izango dute Bigarren eskuko bizikleten merkatuan, Okendo plaza.

16:30etik 19:30era, haur eta gazteentzako jolasak izango dira, Kale Nagusia.

16:30ean, bizikleta martxaren hasiera, Okendo plaza. Ostean, bizikleta ginkana, Okendo plaza.

18:00etan, Ipar martxa ibilaldia, Ostadar Ipar martxa taldearen eskutik, Kale Nagusia.

Okendo plaza eta Kale Nagusia, 16:30etatik aurrera.

EPA LASARTE HHI

2018-2019 ikasturtea



Ordutegia:
11:00-13:00
15:00-19:00*
(*ostiralak ezik)

MATRIKULA EPEA ZABALIK OFIZIALA ETA DOAKOA

- Lehen eta bigarren hezkuntza arautuak (DBH).
- Gaztelania atzerritarrentzat.
- Tailerrak: Euskara, ingelesa, frantsesa, informatika, nutrizioa, artea, literatur tertulia.
- New Intermediate (B level) and Conversation ENGLISH.

Tel. 943 36 66 08 / 943 37 64 43 • Beko kalea bidea 1, 3 • Lasarte-Oria • www.epalasarate.eus



2018-2019 IKASTURTEA UDAL EUSKALTEGIAN MATRIKULA ZABALIK IRAILAREN 19 ARTE

AI, A2 edo B1 (1HE)eko tituluak euskaltegia bertan lortzen dira.
B2 (2HE) eta C1 (3HE-EGA)eko azterketak egiteko prestatu.

IKASTAROAREN IRAUPENA: IRAILAREN 20TIK EKAINAREN 20RA

- Astelehenetik ostegunera. Astean 10 ordu. Txandaka ibiltzeko aukera maila guztietan.
- Hiru ordutegi aukeran: 9:00etik 11:30era; 15:00etik 17:30era eta 18:30etik 21:00era.
- On-line (BOGA)
- 16 urtetik gorakoentzat.

*Diru-laguntzak badaude.
Galdetu baldintzak
Udal Euskaltegian*

ASPALDIKO!

EUSKARA

BERRIRO

ZURE

BIZITZAN.

BERRIA!!!
ZURE EUSKARA MAILA
JAKIN NAHI?
Zatuz Udal euskaltegia eta
proba biki baten bidez esango
dizugu, inolako
kompromisorik gabe

UDAL
EUSKALTEGIAK



Tel: 943 36 16 21 - euskaltegia@lasarte-oria.eus - www.lasarte-oria.eus (administrazioa>udala zure zerbitzura). BULEGO ORDUTEGIA: 08:30-19:00

Emajozu buelta bat zure munduari euskararekin 2018-19



IBILBIDEAK

- Aurrez aurreko ikastaroak, hainbat iraupen eta intentsitatekoak
- On-line ikastaroak, autoikaskuntza...

AGENTZIAK

- Udaleko euskaltegia
- Munterri-AEK euskaltegia

BALDINTZAK

- Lasarte-Orian erroldatua egotea, ikastaroa hasi baino egun bat lehenagotik ikastaroa amaitu bitartean.
- 16 urte beteak izatea ikastaroa amaitzen den egunean.
- Ikastaro hauetakoren bat egina izatea:
 - 1.- Euskaltegiko ikasturtean zeharreko ikastaroa, gutxienez 80 ordukoa.
 - 2.- Barnetegia, gutxienez hilabete segidan baldin bada.
 - 3.- Udako ikastaroak (ikasturtean zehar aurreko ikastaro-mota horietako bat egin duten ikasleen kasuan bakarrik)
- Gutxienez %85eko asistentzia eta gutxienerako aprobetxamendua gaitutia.

Dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo 15 egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak eskaera.

ONDO iBiLi!

Informazio gehiago

Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943 376 184
- e-maila: euskara@lasarte-oria.eus

